

URRATXA III ETA ZATOIA

Antzinako bideetan barna



Testua eta argazkiak
Arturo Laka Ligos

Arturo Laka Ligos (Basauri, 1952). Lanbidez irakasle izanik, gaur egun Donostian bizi da eta jubilatuta dago. Kanpoko mendietan historia edota ibilbide aipagarriak ez badu ere, txiki txikitatik lagun eta senideekin Euskal Herriko makina bat mendi, baso eta bestelako inguruneak ezagutu ditu.

AITZIN SOLASA

Mendia neguan oso gogorra izaten da; udan, ordea, errazagoa da mendi aldean ibiltzea, batez ere egun batzuetako kanpaketa egiteko. Antzina berdintsu izango zen eta zera jakin dugu: Baskoniako mendietako bi lekutan udako kanpaldiak antolatatu zirela ... orain dela hamar mila urte!

Historiaurreko aztarnategi asko ditugu eta honezkeror horiei buruzko informazio zabala topatu daiteke ikertzaileek egindako lanari esker. Cromagnon-en garaia zen, hotza, eta horiek haranen inguruko haitzuloetan bizi omen ziren, hau da, beheko lurretan; baina salbuespenak egon badaude, guk ezagutzen ditugun bi altuenak: Zatoia haitzuloa, Aezkoa-Zaraitzuko Pirinioetan dagoena 900 m-ko

altitudean; eta Urratxa III haitzuloa, Gorbeian eta 1025 m-ko altitudean. Besteak behegaro daude, Ultzamako Abautz haitzuloaren altitudea, esate baterako, 610 m baino ez.

Bestalde, Urratxa III aztarnategian lortu duten datazio absolutu zaharrena 10240 ± 100 urte BP da, eta Zatoia aztarnategian, berriz, 9890 ± 240 urte BP-ko datazio bat dago. Hortaz, bi aztarnategi horiek maila garaikideak dituztela esan daiteke.

Baina, nola izan zen posible aldi hartan horren leku garaian bizitzea? Margarita Muñoz ikertzaileak horrela erantzun zuen: «... Würm izotzaldiaren amaieran klima epeldu zen, eta horrela, Urratxa III haitzuloa hartzeko baldintza egokiak sortu ziren». Eta Ignacio Barandiaran antropologoak, berriz: «... Zatoia



■ Urratxa III koba

haitzuloan gizakien egonaldia laburra izan zen izotzaldiaren amaieraren garai hotzetan, eta ondorengo garai epelagoetan, ordea, luzeagoa. Ilb mailaren aztarna batzuek zera nabarmen-tzen dute, koba hartzen zutela urteko aldi oso labur batean, hots, udaberriaren amaieran iritsi eta uda amaitu baino lehen alde egin».

Margarita Muñoz-ek zera gaineratu zuen: «... [Urratxa III haitzuloa] urtaroko bizitokia izan zen, seguruenik talde nomada batek urteko sasoirik onenean, hots, udan, erabilitakoa». Eta Ignacio Barandiaran-ek: «... Zatoia egoitza berezia eta urtarokoa izan zen. Haitzuloaren ezaugarriek (altitudea, Atlantikoko kostaldearekiko distantzia eta meteorologia) neguan erabiltzea eragozten zuten, baita orain ere eragotziko lukete». Horren isla, Zaraitzu ibarreko artaldeak udazkena baino lehen menditik jaisten direla, eta (artalde batzuk) Bardeak aldera joaten direla "Zaraitzutarren ibilbidea" erabiliz. Gorbeia mendian antzera gertatzen da: Zeanuri eta Orozkoko artzainek ardiak igotzen dituzte Arrabara edo Zastegira uda pasatzeko asmoz. Baina, azaro amaieran ardiak jaisten dituzte ibarreko zelaietara, lehenengo elurtea baino lehen.

Hortaz, antropologoek diotenaren arabera, orain dela gutxi gorabehera hamar mila urte klima hotza leundu egin zen eta, harpetar batzuek uda Gorbeia mendian pasatzea erabaki zuten, eta aldi berean, beste batzuek Aezkoa-Zaraitzuko Pirinioetan. Hori bai, denak mendilerroaren hego isurialdean kokatu ziren, mendi altuko lainoak saihestuz neurri batean. Kantauri itsasoa hurbil dago eta, ipar isurial-

dean ohikoak dira behe-lainoak mendebaldeko Pirinioetan eta Euskal mendietan.

Tira, gure proposamena zera da: historiaurrekoek udako migrazio horretan erabiliko zuten bide beretik geu ere ibiltzea, tarte bat bada ere, zirrargarria, ezta? Jakina, amaierako puntua da segurua den bakarra, eta beste guztia asmatu beharko dugu. Leku ezagunak izanik, edonor da gai ibilbideak proposatzeko. Beraz, gure ibilbideak iradokizunak baino ez dira, eta askatasun handiz aukeratu ditugu. Bi aztarnategiak apur bat ezagutuko ditugu eta, garai hartako flora eta fauna ikasita konturatuko gara gure mendiek ez dutela beti eduki gaur egun duten itxura; konturatuko gara gure mendia ez dela beti izan leku "xarmangarri" bat non loreak hartzen diren, eta txoritxoentxoak entzuten diren. Aitzitik, orain dela hamar mila urte Gorbeian eta gure Pirinioetan ibili ziren historiaurrekoek nahikoa lan izango zuten mendiko piztiak saihesten, bai horixe!

Eta hasierako solas hau amaitzeko, bada, ondo ibili! Seguru baietz, izan ere, Zuberoko esaera zaharrak dioten bezala: «*Orhiko txoria, Orhin laketa*»; edo Hegoaldeko honek: «*Gorbeia behiak, Gorbeian gura dau beti*».

URRATXA III AZTARNATEGIA

Urratxa III koba Orozkon dago, Urratxa izeneko haitzaren hego aldeko hegalean, haran txiki baten gainean. Lekua garaia da baina haizetik babestuta; Gorbeia mendian haizea arazo bat baita, kontuan izan egungo Gurutzea hirugarrena dela, aurreko biak

haizeak bota ondoren ipinitakoa. Ipergor-ta-Gatzarrieta mendilerroak ingurumaria ipar haizetik babesten du; eta hego haizea Gurutzearen konoak kentzen dio. Bestalde, ondotik erreka bat igarotzen da. Egiriñaon jaiotako Baia (ibaia, noski) Urratxa-ra hurbiltzen da eta ekialdeko muturraren aurrean iragazi egiten da, erabat; baina mendebaldeko muturretik birsortzen da, Ubegi aldean, emari handiagorekin (Urratxa, ur-atxa?). Hortaz, ura eta guzti, gustura egongo ziren harpetarrek Urratxa III kobako udalekuan.

Margarita Muñoz-en arabera, haitzuloa azken izotzaldiaren amaieran erabili zuten lehenengo aldiz historiaurrekoek, duela hamar mila urte. Klimaren hobekuntza gertatu zen eta zuhaitz berriak ezarri ziren: ipuruak (*Juniperus*), urkiak (*Betula*) eta pinuak (*Pinus silvestris*); haritzak eta arteak (*Quercus*) ere. Harkaitz eta baso horietan ondoko animaliak harrapatu zituzten: basahuntzak (*Capra pyrenaica*) eta oreinak (*Cervus elaphus*) batez ere; baita basurdeak (*Sus scrofa*), sarriok (*Rupicapra rupicapra*) eta zaldia (*Equus ferus*) ere. Harrapatutako animalia gazteen kopuru handia ikusita, udan egindako ehiza zela zehaztu dute; hau da, Urratxa III haitzuloan urtaroko kanpaketa antolatzen omen zuten, urteko sasoirik onenean, hots, udan. Antzarak eta eper zuriak (*Lagopus lagopus*) ere harrapatu zituzten.

Haitzuloan animalia gehiagoren aztarnak aurkitu dira, garai askotarikoak, batzuk ehizan harrapatutakoak besteak ez. Pedro Maria Castañós-ek hauek zehaztu ditu: uroa (*Bos primigenius*, 6940±75 BP), orkatza, hartz harpetarra (*Ursus spelaeus*), hartz arrea (*Ursus arctus*), otsoa, azeria, katamotza (*Lynx lynx*), basakatua, lepahoria edo lepa-zuria, erbia, untxia, katagorria eta marmota. Eta Miguel Elorzak hurrengo hegaztiak: ugatza, ontza (*Bubo bubo*), mozoloa, belatxinga mokohoria, galeperra, birigarroa, zozoa, ipurtxuria, txepetxa, kaskabeltza eta okil berdea, baina ez da ohiko *Picus viridis*, *Picus canus* baizik. Iker-tzaileen arabera, Urratxa III koban aurkitutako *Picus* horren hondakinak ez dira antzinakoak, ia garaikideak dira, eta kontua da horrelako okilik ez dela Penintsulan ugaltzen gaur egun. Animalia garaikideen hondakinak ere agertu dira, honako hauek: ardiak (265 ± 65 urte BP), behiak eta oiloak.

■ Urratxarako jaitziera



■ Zastegiko haginak





Espezie horietako batzuek ez dute Gorbeia aldean irauten gaur egun; beste batzuek, ordea, bai.

Katamotza (*Lynx lynx*) bezalako "piztiak" estalpe modura erabiliko zuen haizuloa. Ale baten hezurdura osoa Pagolusieta I izeneko leizean aurkitu zuen espeleologo talde batek, Urratxa III kobatik 4 km-ra. Aipatutako leizean sartu bezain pronto 50 m-ko tximinia bertikala dago eta, bertatik amildu omen zen katamotza. Hurbil dagoen Pagolusieta II haizuloan, besteak beste, oso antzinako hartzairen aztarnak (*Ursus deningeri*) aurkitu zuten, eta lehoi nabar batenak (*Panthera pardus*).

Katamotza Zuia udalaren kontu-liburuetan agertzen da, baina "tigere" edo "tigre" izenarekin. Kontua da Gorbeia mendian "pizti" hori ugaria izan zela antzina, eta hura hiltzeagatik dirua ordaintzen zela. Egun, ordea, ez dago katamotzik, ez Euskal mendietan ez Pirinioetan. Jasotako datuen arabera, Gorbeia menditik ibili zen azken tigerea Baranbioko ehiztariek hil zuten 1801. urtean. Marcelino Basaldua apaizak zehatz-mehatz kontatu zigun egindako balentria tristea, eta hara non, esan zuen ehiztariek Urratxa aldean hartu zutela animaliairen arrastoa, eta akabatu zutela Aldamin mendiko harkaitzetan.

Urratxa III aztarnategian ohikoak diren material litikoak jaso dira, baina bat berezia da, artelan bat: 8 cm-ko hareharri bat da, horixka kolorekoa eta aurpegi nagusian pigmentu gorrixkaz zeharka margotutako marra paraleloak dituena.

Harpetarrak hareharrizko uharria behar izan zuen, laukizuzen itxurakoa, paralelepipedoa hobeto esanda, ertzak apur bat higatuta zituena. Koba ondoko erreka aldean erreza da topatzea horrelako uharriak, baita hematite-noduluak ere, marra gorrixkak egiteko egokiak, punta urez busti ondoren. Harri biribilagoak badaude baina, "laukizuzen" irudia piztu omen zitzaion buruan kaskagorriari eta, horrelakoa aukeratu zuen; eta hura edertzeko egin zituen marra gorriak ere "zuzen" marraztu zituen. Harri eder hori ikusi nahi izanez gero jakin Bilbon dagoela jasota Bizkaiko Arkeologia Museoa.

URRATXA III KOBAREN INGURUKO IBILBIDEA

Urratxa III aztarnategira hurbilduko gaituen ibilaldi bat proposatzera goaz, luze samarra, bi etapatan burutuko duguna. Nondik abiatuko ziren historiaurrekoak? Demagun horietako batean bizileku iraunkorra Abadiñoako Bolinkoban zutela, aldibereko maila bat duena. Durango aldean errekek mendi-zintzurak eratu dituzte eta gu bigarrenean gaude, Atxarten, haizarte sekulakoa, Dorronsoloko errekek eraturakoa Atxxiki eta Unzillatx mendien artean. Jose Migel Barandiaran gogoan, 1932an Aranzadi-rekin batera Bolinkoba aztarnategia ikertu zuela gogoraziko dugu. Bada, Bolinkoba-Urratxa III ibilbidea osatuko dugu bi etapatan:



■ Urratxa III Ibilbideak

1. ETAPA

(P1) Atxarte - Urkiola - Zumeltza gana - Barazar mendatea - Saldropo

(P1) Atxarte -	300 m	+3,0 km	+1:10 h
(A) Urkiolako mendatea -	712 m	+5,5 km	+1:50 h
(B) Zumeltza gana -	596 m	+4,5 km	+1:20 h
(C) Barazar mendatea -	607 m	+2,5 km	+0:40 h
(P2) Saldropo	620 m	15,5 km	5 h

*Saldropora bi kotxetan igoko gara, bat bertan utzi, eta bestean Atxartera jaitziko gara ibilbidea hastera.

2. ETAPA

(P2) Saldropo - Atxuri - Aldamiñape - Zastegiko landa - Urratxa III

(P2) Saldropo -	620 m	+2 km	+0:50 h
(D) Atxuri harratea -	916 m	+2 km	+0:40 h
(E) Aldamiñape (zurtoina) -	1000 m	+1,5 km	+0:30 h
(F) Zastegiko landa (zurt.) -	1100 m	+1 km	+0:30 h
(G) Urratxa III	1025 m	6,5 km	2:30 h + itzulera

*Saldropora kotxe batean igoko gara, eta bertan aparkatuko dugu, urkidi txiki baten ondoan; oinez handik hasiko gara eta.

ZATOIA AZTARNATEGIA

Haizuloa ikustera joateko NA-140 errepidea hartu behar da, Ezkaroze-tik abiatuta, Aezkoa harana ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duena. Eaurta (Jaurrieta) eta Abaurregaina herrien artean dagoen zubi batera joan behar da; Zatoia ibaiaren gaineko zubia dugu, errepideko K-22 eta K-23 mugarrien artean dagoena.

Zubi ondoan aparkatuko dugu. Zubitik ipar aldera basabide bat hasten da (Zatoiako aisialdi-gunera daramana) eta bertan utziko dugu kotxea, basabide bazterrean. Oinez,

errepide bazterretik mendebaldera, Abaurregaina aldera, joko dugu, ingurune guztia sastrakaz beteta dagoelarik, zeharkaezina.

300 m inguru egindakoan, eta eskuin alderako bihurtzerako 50 m falta direnean, eskuin aldeko sastrakadian zabalgunera bat agertuko da, mendiari jandakoa. Noizbait errepidean lanak egiteko behar zuten harria leku horretatik hartu zuten eta, ezustean, pareta bat apurtu eta haizuloa topatu zuten. Puntu horretan errepidea utzi eta mendi aldera joko dugu. Metro batzuk eginda koban egindako zuloa ixten duen burdinazko atea ikusiko dugu.

Eskuin aldetik jarraituta harmaila batzuk daude, gaindituko ditugunak; aurrera pixka bat egin eta, hortxe, bide-zidorraren ezker aldean kobaren jatorrizko ahoa agertuko da, sastraka artean eta burdinesi batez itxita. Ez dakit ikustera joateak merezi duen, bazterra itsusi baitago, oso itsusi egon ere. Bidea sastrakaz beteta dago, eta koba ondoan ez dago egoteko lekurik; ezin da eseri eta pixka bat egon, haitzulotik dagoen ikuspegia behatzeko ... Ikerlarien lana amaitutakoan akabo, bost axola nola aurkitzen dugun ingurua atzetik gatozenok; koba ixtearekin batera, burdinsare itxi-itxia jartzen dute askotan.

Ikertzaileek esan dutenaren arabera, 12-18 laguneko taldea bizi omen zen Zatoia haitzuloren izotzaldiaren amaieran. Eta haitzuloren inguruan haitzak, landak eta baso irekiak zeuden: hariztiak, urkidiak eta pinudiak. Aurkitutako animalia gazteen kopuru handiak urtaroko bizitokia izan zela adierazten du, uda bitartean soilik. Suharriak Artxilondo izeneko bazterrean lortzen zituzten, guk ezagutuko dugun lekua. Ehizan oreinak harrapatzen zituzten batez ere, asko jaioberririk; baita basahuntzak, sarriokak, zaldiak, uroak eta elur oreinak ere. Haragijaleen hondakinak ere agertu dira, ondoko hauek: hartz harpetarra, azeria, azkonarra, lepahoria edo lepazeria, eta katamotz iberiarra (Lynx pardina).

ZATOIA HAITZULOAREN INGURUKO IBILBIDEAK

Arestian aipatu dugu nola ikertzaileek frogatu zuten Irati barruko Artxilondo-ko suharri-mota aztarnategian agertu zela. Orduan pentsa liteke, Iparraldetik joanez gero, historiaurrekoek joaneko ibilaldia aprobetxatuko zutela lehenengo suharri-karga haitzulora eramateko. Gauzak horrela, urte osoko egoizatik abiatuta, migrazioan historiaurrekoak "harrobitik" igarotzen zirela proposatuko dugu, Egurgio erreken arroan dagoen Artxilondoko harrobitik, hain zuzen. Artxilondotik aurrera, berriz, haitzulorantz joateko hego aldera jo behar da, eta hara non, Iratiko basoan badago berezko bide luze bat ipar-he-

go norabidean Irati osoa zeharkatzen duena: Iratiko lepoan kokatuta, Egurgio erreka irekitako ibarra zuzen doa hego alderantz; Irati ibaian amaitzen da baina, ibaia zeharkatuta jarraipena dago beste aldetik, erreka txiki batek higatutako arroa baitago, maldatsua, Tapla mendateraino daramana. Hain zuzen, Iratiko lepotik abiatuta, 14 km inguru eginda Tapla mendateraino iritsiko ziren harpetarrak. Hortik kobara 10 km gehiago geratuko zitzaizkien harpetarrei, guk ezagutuko ez ditugunak. Iratiko basoa zeharkatzen historiaurrekoek deskribatzen zuten ustezko ibilbidearen inguruan hiru ibilaldi biribil proposatuko ditugu, bakoitzean ibilbide haren "zati" bat hartzen delarik: hirurak zoragarriak, mendiaren handitasunaz gozatzeko aukera emango dutenak, baita Iratiko basoaren sakonetik ere igarotzen direnak ...



■ Zatoia ibilbideak

1. IBILALDIA

(P1) Orion - Eskandako lepoa - Errozateko lepoa (M221) - Nekez egina (M224) - Egurgioko zubia - Mozoloko atea - **(P1) Orion**

(P1) Orion mendatea -	976 m	+1,0 km	+0:30 h
(A) Eskandako lepoa -	1164 m	+2,5 km	+0:50 h
(B) Errozateko lepoa -	1072 m	+5,0 km	+1:40 h
(C) Egurgioko zubia -	830 m	+2,5 km	+0:50 h
(D) Mozoloko atea -	1046 m	+2,0 km	+0:40 h
(P1) Orion mendatea	976 m	13 km	4:30 h

2. IBILALDIA

(P2) Irabia urtegia - Egurgioko zubia - Okabe - (Ilharrita) - Iratiko lepoa - (Artxilondo) - Egurgioko zubia - **(P2) Irabia urtegia**

(P2) Irabia urtegia -	830 m	+3,5 km	+1:00 h
(C) Egurgioko zubia -	830 m	+5,0 km	+2:00 h
(F) Okabe -	1466 m	+3,0 km	+0:50 h
(G) Iratiko lepoa -	1008 m	+6,0 km	+1:40 h
(C) Egurgioko zubia -	830 m	+3,5 km	+1:00 h
(P2) Irabia urtegia	830 m	21 km	6:30 h

3. IBILALDIA

(P3) Tapla mendatea - Paso de las Alforjas (Arrizabala) - Koixtako basabidea - Arrain erreka - **(P3) Tapla mendatea**

(P3) Tapla mendatea -	1370 m	+3 km	+1:00 h
(K) Paso de las Alforjas (Arrizabala) -	1440 m	+2,5 km	+0:40 h
(L) Koixtako basabidea -	1160 m	+4,5 km	+1:30 h
(M) Arrain erreka -	1130 m	+2,0 km	+0:50 h
(P3) Tapla mendatea	1370 m	13 km	4 h

■ Zatoia haitzuloren jatorrizko ahoa



■ Ikuspegia Taplatik

